

GORLIZKO KIROLDEGIKO ARAUDIA

1. Gorlizko Udal Kiroldegia, Araudi honen arabera, Kirolak praktikatzeko eta baita ekimen soziokulturalak egiteko helburua duten udal eraikuntzak dira.

Kiroldegiko erabilera

2. Gorlizko Udalak kiroldegian egiteko ekintza eta ekitaldien egitarauak onartzen ditu, bertan ematen diren erabilpen ezberdinak kontuan hartuta.

3. Eskatzailea –fisiko edo iuridikoa– kasuan kasuko tasen ordainketekin egunean egoteak eta lekuak modu desegokian erabiltzeagatik edo inolako zigorrik gabe egoteak baldintzatzen du Kiroldegiko erabilpena.

Kiroldegian sartzea

4. Kiroldegira sartzea modu askean egiten da, muga bakarrak legean edo araudi honetan ezarritakoak izanik, edo erabileraren ondoriozkoak eta egin nahi den jardueragatik ordaindu beharrekoarenak. Ikastaro edo ekintzaren bategatik ezer ordaintzeko daukanak ezin izango du beste ekintzarik egin daukan zorra ordaindu arte.

5. 14 urte baino gazteagoak denbora guztian persona heldu batekin egon behar du Kiroldegi barruan.

6. Kiroldegiko langileek ez daukate baimenik txartelik gabeko inor sartzen uzteko.